

IRUÑEA

DANI SARALEGI, GORA IRUÑEA PLATAFORMA

«Sanferminak enpresa pribatuei saltzen eta hiritarrok baztertzen ari dira udal agintariak»


Iruñeko Udalaren jai ereduaren ezaugarriak pribatizazioa, esponsorizazioa, ikuskizun pasiboa, etekin partidista eta gizarte kontrolik hertsiena dira». Era horretan laburbildu du Dani Saralegi Gora Iruñea plataformako kideak jaiak bizi duten egoera.

Udal agintarien jarrerari dagokionez, honokoa dio: «Erasoak gehituz joan dira, bai kopuruan eta baita larritasunean ere. Auzoetako festen kasuan, aurrera eraman ahal izateko Udaletik ezartzen diren baldintzak gehiegizkoak dira».

Isunak eguneroko ogia direla azpimarratu du. «Auzoetako jai batzordeek jasotako isunak etengabeak dira eta neurritz kanpokoak –argitu du–. Olentzeroak, inauteriak, auzoetako jaiak... direla-eta jarri dituzten isunak kontatzen hasita, kopurua eskandalagarria da. Iruindarrok jasaten dugun etengabeko diru galeraren isla da. Zer eta hiriko kaleak gure festen ospakizunetarako erabiltzeagatik!».

Sanferminek bizi duten egoera ez da auzoetako festena baino hobea. «Are larriagoa da. Jaiak espazioen eta ekitaldien esleipena daukaten enpresei saltzen dizkiete, elkarreterako eta herri mugimenduko kideak erabat baztertuta gauden bitartean. Hau sistematikoki ematen da. Espontaneoak omen diren jaietan, iruindarrok kalean festak ospatzeko baimena eskatu beharrean aurkitzen gara», dio Dani Saralegik.

Gakoa ondorengoa da: «Udalak ez du jai herrikoietan sinesten, ezta herri mugimenduan ere. Izan ere, ez du auzotarron gaitasunean sinesten. Baina guk aurrera jarraitzen dugu eta ez gaituzte geldituko».



Iruindar eta kanpotarrek bat egiten dute Estafeta kalean Sanferminetan.
Iñigo URIZ | ARGAZKI PRESS

Diru laguntzarik aspaldian ez dute jasotzen. «Kultur elkarteek laguntzak urtez urte murriztuz joan direla ikusi dute. Laguntzak jaso ahal izateko baldintzak izugarri zaildu dituzte», salatu du Gora Iruñeko kideak.

Udalaren aldetik jasotako erasoak etengabeak izan dira. «Hiriko espazio publikoak erabiltzeagatik gehiegizko tasak, herri mugimenduak antolatutako ekitaldien debekuak, ezarritako bal-

dintzak 'ez betetzeagatik' sekulako isunak, tabernak oso goiz ixteko aginduak, Poliziak antolatzaileei egindako jazarpenak, herri mugimenduaren kriminalizazioa...», gogoratu du Saralegik.

Ez da denboran oso atzera joan beharrik egoera honen adibideak aurkitzeko. «Txantreako jaietan gertatutakoa ikaragarria izan da. Maiatzaren Leheneko kaldereteak egiten ari ziren guzuek –3.000 pertsona zeuden

bilduta– bi kamioi-zisterna erabili zituzten dena urez gainezka uzteko», gogoratu du.

Agintarien argudioak era guztietakoak dira. «Udal ordenantzak ez direla bete –askotan gizarte kontrolerako sortuak izaten dira ordenantza horiek–; erakunde antolatzaileen aitortza eza; eskatutako tokiaren desegokitasuna; edota, euren arabera, sektore politiko jakin bati lotutako ideia eta pertsonekin

bat egiten dutela ekitaldiek», argitu du Saralegik. Bere esanetan, inoiz ez diote baliorik eman herri mugimenduak hiriarekiko agertutako konpromisoari. «Jaien antolakuntzan herriaren parte hartzeak duen balioa ez dute onartu», esan du.

Bidean aurkitutako zailtasunek inoiz ekitaldiren bati eragin izan badiote ere, «inoiz ez dira bertan behera utzi». Gora Iruñea plataformako kidearen iritziz, «emandako erantzunaren gauzarik garrantzitsuena antolatzaileen eta auzotarren arteko batasuna da. Direla manifestazioak, kontzentrazioak, giza-ka-teak, desobedientzia zibilari lotutako ekintzak...».

KONTROLA

Herri mugimendua kontrolpean izateko nahia ez da berria Iruñean. «Dena den, azkenaldian, Udalaren lehenetasuna dela esango nuke –adierazi du–. Ekitaldiak kontrolatu egin nahi dituzte, eta, kasu batzutan, debekatu. Sanferminetan jarrera gero eta okerragoa da urtez urte, eta dudarik gabe esan dezakegu jaiak saltzen ari direla».

«Hiritarrak pasibo izatetik aktibo izatera pasatzea ez dator bat udal handiek eta botereak, orokorrean, hiritargoari buruz duten ideiarekin. Hiria erakusleihen partidista bezala erabiltzen dute eta ez zaie buruan sartzen erakunde edo elkarte batek euren baimenik eta baldintzarik gabe kaleaz gozatzea –gaineratu du Saralegik–. Festen antolatzaileak Udala bera ez izatean kaleen kontrola galtzen dute, baita kaleez goza dezaketen pertsonen gaineko kontrola ere. Eta komunikazio kontrola ere galdu egiten dute, euren eskandalurako, adierazpen askatasuna jaun eta jabe baita Sanferminetan».